ONE-CLUB MAN 2026

JEAN-LUC ETTORI




RMC


RMC
A.S. MONACO


SO.NI.MA.G
SAM'S PLACE
ECHOS
DU CENTRE
DE FORMATION
LA FORMATION
A L'A. S. MONACO
PROGRAMME
D'INSTRUCTION TECHNIQUE.
B.I.A.I.
BALLY

JEAN-LUC ETTORI

AS MONACO

One-Club Man 2026

EUSKERA


FRANCE Football 6F
CE CHAMPIONNAT
il fait des bonds...
il fait des bonds...
RMC

JEAN-LUC ETTORI, AS MONACO BERE ETXE BIHURTU ZUEN MITOA

IA BI HAMARKADAZ, JEAN-LUC ETTORI AS MONACOREN ATEZAINA BAINO ASKOZ GEHIAGO IZAN ZEN: KLUBAREN AURPEGIA, KAPITAINA, ERREFERENTEA ETA, DENBORAREKIN, FRANTZIAKO FUTBOLAREN HISTORIAKO IKUR HANDIETAKO BAT.

AS Monacora 1975ean iritsi zenean, 20 urte besterik ez zituen. Oraindik ezin zuen imajinatu Printzerriko klub hura bere bizitza bihurtuko zenik. Ez zekien, halaber, 19 denboraldiz (1975-1994) atea defendatuko zuenik eta bere izena ia errepikaezina den marka batekin betiko lotuta geratuko zenik: rouge et blanc taldearen elastikoarekin 755 partida, klubaren errekor absolutua.

1955eko uztailaren 29an Marsellan jaioa eta jatorriz korsikarra, Ettori Vichyko prestakuntza-zentro ospetsuan hezi zen, Pierre Pibarot ezagunaren eskutik, Monakora iritsi aurretik. Han hasi zuen futbol profesionalean ohikoa ez den leialtasun-istorio bat. 1977an, orduko titularra zen Yves Chauveauren lesioak atea behin betiko ireki zion. Ettori atepean jarri zen eta hor gelditu zen ibilbidearen amaierara arte.





Aukera une erabakigarrian iritsi zen. Monako maila gorenera itzuli berria zen, eta atezain gazte hark klubaren historiaren parte izango ziren jokalariekin partekatu zuen aldagela. Jean Petit, Delio Onnis, Claude Puel, Manuel Amoros, Bruno Bellone... belaunaldi asko zeharkatu zituen ibilbidearen etapa ezberdinetan Ettorirekin batera egon ziren izenak.

TXAPELDUN, URTEBETE GEROAGO

1978an, AS Monacok Frantziako txapelketa irabazi zuen, elitera itzuli eta urtebetera. Ettorik 22 urte zituen eta hasierako hamaikakoan mantendu zen. Titulu hura bere ibilbidean irabaziko zituen Frantziako hiru txapelketetako lehena izan zen; beste biak 1982an eta 1988an lortu zituen. Horiez gain, Frantziako hiru Kopa ere eskuratu zituen: 1980an, 1985ean eta 1991n. 1985ean, gainera, Challenge des Champions delakoa lortu zuen, Superkoparen antzekoa: Ligue 1eko eta Frantziako Kopako txapeldunen arteko norgehiagoka.

Ettorik berak hainbat elkarrizketatan gogoratu du lehen belaunaldi hura talde bereziki batua zela. Ez zen talentu kontua bakarrik. Bere hitzetan, kidetasun-sentimendua ere bazen: Printzerriko koloreak defendatzea eta familia baten parte sentitzea. Sentimendu horrek bere ibilbidearen zati handi bat azaltzen du. Beste futbolari batzuk klub batetik bestera aldatzen ziren bitartean kontratu

hobeen, erronka berrien edo ospe handiagoaren bila, Ettorik Monakon geratzea erabaki zuen. Entrenatzaileak aldatu ziren, taldekideak ere bai eta futbola bera bilakatuz joan zen, baina bera beti zegoen atepean leku berean.

MUNDUKO TXAPELKETA SAN MAMESEN

Bere errendimenduak Frantziako selekziora eraman zuen. Michel Hidalgok Bleusen atea defendatzeko aukera eman zion eta Ettori titular gisa iritsi zen 1982ko Espainiako Munduko Txapelketara, Frantziako selekzioaren historiako txapelketa handienetako batera.

Abentura Bilbon hasi zen. San Mamesen, Ettori hasierako hamaikakoan zegoen Frantzia-Ingalaterra partida historikoan, britainiarrek 3-1 irabazi zutena. Partida hark esanahi handia izan zuen, Ettori Frantziako hirugarren atezaina izatetik Munduko Txapelketako nagusia izatera pasa baitzen. Hidalgok zalantza zuen Jean Castaneda eta Dominique Baratelliren artean, baina azkenean Monakoko atezain gaztearen alde egin zuen.

Ondoren, Kuwait, Txekoslovakia, Austria eta Ipar Irlandaren aurkako partidak jokatu zituen. Finalerdietan, Sevillan, Frantziak Munduko Txapelketen historiako partida gogoangarrienetako bat jokatu zuen: 3-3 Alemaniaren aurka, penalti jaurtiketetan erabakita. Ettori atepean egon zen 120 minutuetan. Frantzia laugarren postuan sailkatu zen azkenean.





Ettorirentzat, ordea, txapelketa hura izan zen nazioarteko ibilbideko gailurra. Bederatzi partida jokatu zituen Frantziako selekzioarekin, eta horietatik sei Munduko Txapelketa hartan.

WENGERREN KAPITAINA

Monakon, aldiz, bere historia amaitzetik urrun zegoen. Laurogeiko hamarkadak laurogeita hamarrekoei eman zien bidea, eta kluba gero eta gehiago hasi zen Europari begira. Arsène Wenger entrenatzaile zela, AS Monakok beste dimentsio bat hartu zuen. Ettori orduan beteranoa, kapitaina eta belaunaldi baten ahotsa zen. Urrezko Izarra (Étoile d'Or) jaso zuen, Frantziako lehen mailako (Ligue 1) denboraldi bakoitzeko jokalaririk nabarmenena eta erregularrena saritzen duen ohorezko saria. Gainera, 22 partida atea hutsean amaitu zituen 1989/90 denboraldian; denboraldi hartan Ligue 1ean gol gutxien jaso zuen atezaina izan zen. Balentria bera lortu zuen 1980an, 1982an eta 1984an.

1992ko maiatzaren 6an iritsi zen Europako aukera handia: Errekopa zaharraren finala, SV Werder Bremenen aurka, Lisboako Estádio da Luzen. Ettorik AS Monaco kapitain gisa gidatu zuen talde frantsesa hitzordu hartan, baina taldeak



2-0 galdu zuen. Testuinguruak are mingarriagoa egin zuen porrota. Finala Korsikako SEC Bastiaren zelai Furianiko tragedia gertatu eta biharamunean jokatu zen; Ettoriri bereziki eragin zion gertakariak, bere jatorria kontuan hartuta. Frantziako futbolaren historiako tragediarik larrienean, 18 pertsona hil ziren, milaka ikusleren pisuaren ondorioz harmaila bat behera etorri ostean. Ezbeharra Frantziako Kopako finalerdian gertatu zen, SEC Bastia eta Olympique Marseille elkarren aurka jokatzekoa zen norgehiagokan. Hildakoen eta zauritutako milaka pertsonen omenez, ezin da futbol partida ofizialik jokatu Frantzian maiatzaren 5ean.

Urte batzuk geroago, berak aitortuko zuen taldeak ez zuela bere mailan jokatu. Portugalen izandako gau haren oroitzapena ezinbestean galdutako aukeraren sentsazioarekin lotuta geratu zen. AS Monacok berak bere historiako Europako lehen final handitzat hartzen du final hura (2004an, Champions Leagueko finalera heldu zen). Baina porrotean ere, Ettorik ia bi hamarkadaz Monako izan zenaren irudia ordezkatzen zuen: erresistentzia, leialtasuna eta jarraitutasuna.

Bere marka pertsonalen artean, gainera, ohore berezi bat dago: kluben arteko Europako txapelketetan 60 partida jokatu

zituen lehen frantziarra izan zen, 1994ko apirilaren 27an, AC Milanen aurkako Champions Leagueko finalerdian.

AZKEN AGUR ZINEMATOGRAFIKOA

Azken partida 1994ko maiatzaren 21ean jokatu zuen, 39 urte zituela, Stade Louis-II futbol zelaian. Aurkaria Nantes zen. Monacok 1-0 irabazi zuen, Grimandiren golari esker. Eta orduan gertatu zen eszena horietako bat, pelikula bat ixteko idatzia dirudiena. Gola sartu ondoren, Grimandik ia zelai osoa zeharkatu zuen atezain beteranoarekin besarkatzeko. Belaunaldi batek beste bati egindako aitortza zen.

Ettorik aldagela partekatu zuen Onnis, Amoros, Bellone, George Weah, Emmanuel Petit, Youri Djorkaeff, Lilian Thuram, Jürgen Klinsmann eta Glenn Hoddle bezalako izarrekin. Orduan, 39 urterekin, behin betiko ixten zuen bere futbolari aroa.

755 partida jokatu zituen AS Monacorekin, eta kopuru hori klubaren historiako errekorra da oraindik. Frantziako maila gorenean, berriz, 602 partida jokatu zituen; marka horri 19 urtez eutsi zion, harik eta beste atezain batek, Mickaël Landreauk, 2013an gainditu zuen arte.

1994an, gainera, Frantziako Gobernuaren kondekorazioa jaso zuen bere ibilbidea aitortzeko.





ESKULARRUETATIK BULEGORA

Baina Ettorik ez zekien futboletik urrun bizitzen. Eta are gutxiago Monakotik urrun. Erretiratu ondoren, Monakoko klubean jarraitu zuen. Lehenik, atezainen entrenatzaile gisa, urte luzez bete zuen eginkizuna. Lehen taldeko entrenatzaile gisa ere esperientzia laburra izan zuen: Printzerriko klubaren aulkian eseri zen 17 partidatan, 1994/95 denboraldian. Ondoren, atezainak prestatzen jarraitu zuen 2005era arte, eta, 2005etik 2008ra, kirol-zuzendari izan zen.

Aurrerago, beste esperientzia batzuk ere etorri ziren: Nîmes, Suitzako Neuchâtel Xamaxen egonaldi laburra eta, azkenik, Tours, non zuzendaritza-lanak bete zituen. 2013an, Tours FCko presidente delegatu izendatu zuten. Nolanahi ere, etapa horietako bakar batek ere ez zuen Monakorekin zuen lotura ezabatu. Agian, Jean-Luc Ettorik ez zuelako inoiz azaldu beharrik izan leialtasunak zer esan nahi duen. Ia hogei urtez praktikan jarri zuen.

DEUX CHEVAUX-AREN GIZONA

Bada, gainera, pertsonaia ezin hobeto laburbiltzen duen irudi bat. Bere mailako beste futbolari batzuk luxuarekin eta oparotasunarekin lotuta ager zitezkeen



bitartean, Ettori ezaguna zen Monakon Citroën Deux Chevaux (2 Zaldi) zuri batean Printzerrian zehar ibiltzeagatik.

Xehetasuna bitxikeria iruditu daiteke, baina bere ibilbide osoan erakutsi zuen nortasunarekin bat egiten du: 1,74 metro luze besterik ez zituen atezaina, bere indar fisikoaz inoiz inposatu beharrik izan ez zuena; inoiz bere bizitzako kluba utzi nahi izan ez zuen internazional frantsesa; belaunaldiak zeharkatu zituen kapitaina; Europako futboleko figura handienetako batzuekin jantziak partekatu zituen jokalaria. Jean-Luc Ettoriren historia ez delako tituluekin, partidekin edo errekorrekin bakarrik azaltzen. Hitz batekin azaltzen da: kide izatea.

2024an, AS Monacoren mendeurrenaren ospakizunen barruan, Ettori klubeko aspaldiko izarrekin elkartu zen berriro. Han jarraitzen zuen belaunaldien artean erraz ezagutzeko moduan. Berak aitortu zuen lau futbolari-belaunaldi ezberdinekin jokatu izanak berezia sentiarazten zuela. Agian, hori da bere ondarea ulertzeko modurik onena.


Kutxabank
Bizkaia
ATHLETIC CLUB
BILBAO
Betizurekin


ATHLETIC CLUB
BILBAO
Petronor
kutxabank



Athletic Club

2026/27

www.athletic-club.eus

Ibaigane, Alameda Mazarredo, 23. 48009 Bilbao